

# **1/2003 FORU DEKRETUA, urtarrilaren 21ekoa, Gipuzkoako Ezinduen Kontseilua sortzeko araudia onartzen duena.**

## **OHARRA**

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Araua osoa eta eguneratua jasotzen da bertan.

1983ko azaroaren 25eko 27/83 Legeak, Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko Harremani buruzkoak, 7. artikuluko lehenengo eta bigarren zatietan xedatu zuen tokian tokiko foru erakundeei zegokiela hainbat gairen inguruko erkidegoko osoko legeria betearazteko eskumena, (gizarte laguntza, garapen komunitarioa, emakumeen inguruko politika, haur eta gazteei buruzkoa, adinekoena eta aisialdia), Erkidego osorako erakundeek bere kontu egin zezaketenaz gain.

1996ko urriaren 18ko 5/96 Legeak, Gizarte Zerbitzuenak, gizarte zerbitzuen sistemaren irizpide orokorrak xedatu zituen eta horien artean, besteak beste, gizartean parte hartzea aipatu zuen; ildo horretatik xedatu zuen herritarrek gizarte zerbitzuetan demokratikoki parte har dezaten sustatu behar dutela herri agintariak, lege horretako 20. artikuluan ezarritako organoak, aholku emateko eta parte hartzeak, jarrita.

Herri agintariak ezinduen ongizatea sustatu behar dute eta horretarako ezinduen arazoei konponbidea bilatzeko gizarte zerbitzuen sistema eratu behar dute. Sistema horren atal bat ezinduen parte hartzea bermatuko duten egiturak antolatzea izango da, eta Ezinduen Kontseilua horretarako lantresna da, hain zuzen ere.

Beste alde batetik, ez dugu ahaztu behar gizarte zerbitzuak, zehazki ezinduei zuzendutakoak, izugarri hedatu direla eta horregatik Gipuzkoako Ezinduen Kontseilua sortzea eta abian jartzea komeni dela organo aholku emaile izan dadin eta ezinduek berek parte har dezaten.

Kontseiluak ezinduek eta beren elkarrekin duten esperientzia aberatsa ezagutarazi eta bideratzeko bidea eskaini behar du, eta aldi berean ezinduen partehartzea sustatu.

Azken finean, Kontseiluaren xedea zera da, gizarte ekintzako printzipio gidaria indarren jartzea, hau da, ezinduek gizartean parte har dezaten sustatzea.

Foru Aldundiak Ezinduen Kontseilua sortzeko duen eskumenari dagokionez, Gizarte Zerbitzuen Legeak 11.7 artikuluan bereziki dio foru erakundeei dagokiela ezinduen eta haiekin lan egiten duten erakundeen parte hartzea sustatzea.

Horiek horrela, Gizartekintza Departamentuko foru diputatuak proposaturik, Diputatuen Kontseiluak gaia aztertu ondoren honako hau,

## ERABAKI DU

### **1. artikulua. Xedea eta ezaugarriak.**

1. Gipuzkoako Ezinduen Kontseilua sortu da, ezinduek eta ezinduekin lanean ari diren erakunde, elkarte eta taldeek parte hartuko duten topagune berezi izateko eta ezinduen ongizatea helburu duten politika eta jarduerak planifikatu eta jarraipena egiterakoan elkarlanean aritzeko.

2. Gipuzkoako Ezinduen Kontseilua organo kolegiatua eta aholku emailea da. Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizartekintza Departamentuaren menpean dago eta ezinduentzako gizarte politikak prestatu, abian jarri eta jarraipena egiteko sortu da.<sup>1</sup>

### **2. artikulua. Helburuak eta zereginak**

- a) Hain diskriminatzailea ez den eta integratzaileagoa den gizarte bat lortzen laguntzea.
- b) Ezinduen irudi egiazkoagoa ematea, ez hain estereotipatua, eta beren alderdi onak eta solidarioak nabarmentzea.
- c) Gizarte estereotipoen aurkako kanpainak sustatzea.
- d) Ezintasun, menpekotasun edo bazterketa egoerei aurre egiteko politikak sustatzea.
- e) Ezinduen parte hartzea areagotzea eta giza baliabideei probetxu gehiago ateratzea horrela, gainera, beren buruak aintzat hartuko dituztelako eta hobeto gizarteratuta egongo direlako.
- f) Gizartekintza Departamentuarekin elkarlanean aritzea gizarte zerbitzuen legea oinarri hartuta ezinduen alde lan egiteko.
- g) Gipuzkoa gizarte alderdi horren inguruko politikari nola egokitzen den aztertzea eta horren berri ematea.

---

<sup>1</sup> Ikusi, 2012ko apirilaren 2ko 13/2012 Foru Dekretua, Gizarte Politikako Departamentuaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzkoa (2012/04/16ko GAO). Bere 2. artikulua 2. zenbakiko c) hizkian Gipuzkoako Lurralde Historikoko Desgaituen Kontseilua aipatu departamentuari atxikia geratzen dela jasotzen da.

### **3. artikulua. Egitura, eraketa, zereginak eta izendapena.** <sup>2</sup>

1. Ezinduen Kontseilua honela osatuko da:

- Lehendakaria:

Kontseiluko buru eta ordezkaria Gizarte Politikako Departamentuko foru diputatua izango da; eta honako zeregin hauek edukiko ditu:

- a) Bileretarako deiak egitea.
- b) Bileratako aztergaien zerrenda prestatzea.
- c) Bilerak hasi eta bukatutzat ematea.
- d) Eztabaida zuzendu, bertan behera utzi, eta hitza eman edo kentzea.
- e) Berdinketak haustea.
- f) Foru dekretu honek edo indarrean dauden arauak ematen dizkieten beste edozein zeregin betetzea.

Zeregin horiek guztiak lehendakariordeari eskualdatu ahal izango dizkio.

- Lehendakariordea:

Lehendakariak izendatutako Kontseiluko kidea izango da lehendakariorde. Bere zereginak honako hauek izango dira:

- a) Lehendakari kargua bete gabe dagoenean, edo titularra kanpoan edo gaixo dagoenean haren tokia betetzea.
- b) Lehendakariak eskuordetzen dizkion zereginak betetzea.

- Kontseilu-kideak:

- a) Desgaitasun fisiko, sentsorial, psikiko eta adimen gaixotasunaren sektoreko elkarteen hamar ordezkari.
- b) Sektore honetan zerbitzu ematen duten entitateen lau ordezkari.
- c) Gipuzkoako udalen bi ordezkari; horietako batek Donostiako Udalekoa izan behar du nahitaez.
- d) Sektore honetan ordezkaritza handiena duten bi sindikatuen ordezkari bana.
- e) Eusko Jaurlaritzan Osasun arloan eskumena duen sailaren ordezkari bat.

---

<sup>2</sup> Hirugarren artikulua aldatu egin du 2013ko azaroaren 12ko 38/2013 Foru Dekretuak, aldatzen duenak 2003ko urtarrilaren 21eko 1/2003 Foru Dekretua, Gipuzkoako Ezinduen Kontseilua sortzeko araudia onartzekoa.

- f) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren ordezkari bat.
- g) "Uliazpi Fundazioa" foru erakunde autonomoaren ordezkari bat.
- h) Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuaren bi ordezkari.

- Idazkaria: Gizarte Politikako Departamentuko idazkari teknikoa; hitz egiteko eskubidea izango du, baina botorik ez.

2. Kontseiluko kide bakoitzeko -lehendakariaren kasuan izan ezik- titularra eta ordezkoa izendatuko dira.
3. Kideen izendapena Gizarte Politikako Departamentuko foru diputatuari dagokio, ordezkatzan dituzten erakundeen proposamena aintzat hartuta.
4. Kontseilua osatzean, emakumeen eta gizonezkoen presentzia orekatua izan dadin saiatuko da.

#### **4. artikulua. Iraupena.**

Ezinduekin lanean ari diren erakunde eta elkarten ordezkariak lau urtez izango dira kontseiluko kide.

#### **5. artikulua. Antolaketa.**

1. Kontseiluaren antolaketa eta funtzionamenduari dagokionez, 30/1992 Legeak, 1992ko azaroaren 26koak, Herri Administrazio Guztien Zuzenbide Arauen eta Administrazio Jardunbidearenak, II. idazpuruko II. kapituluan, organo kolegiatuei buruzkoan, xedatutakoa beteko da.
2. Gipuzkoako Ezinduen Kontseiluak jarduteko behar dituen arauak biltzen dituen antolaketa erregelamendua onartu ahal izango du, araudi orokorrean eta foru dekretu honetan xedatutakoari jarraituz.

#### **6. artikulua. Funtzionamendua.**

1. Kontseiluak gutxienez hiru hilean behin egin beharko ditu ohiko bilerak eta apartekoak, berriz, aztertu beharreko gaiak hala eskatzen dutenean, presakoak direnean, alegia. Horretarako deialdia lehendakariak egin beharko du bere ekimenez edo Kontseiluko kideen herenaren eskariz.
2. Bileretarako deialdiak bilera eguna baino 7 egun natural lehenago egingo ditu Kontseiluko lehendakariak; deiarekin batera aztergai zerrenda ere bidaliko du. Zerrenda idazkariak egingo du lehendakariak emandako aginduei jarraituz.
3. Kontseiluko bilerak egiteko lehendakaria edo bere ordezkoa eta Kontseiluko kideen erdiak egon beharko dute gutxienez.

4. Erabakiak gehiengo soilaren bidez onartuko dira. Berdinketarik egonez gero lehendakariak edo bere ordezkioak ebatziko du kalitate botoaren bidez. Erabakietan gehiengoaren erabakiaren aurkako boto partikularrak adierazi ahal izango dira.

5. Idazkariak aktan jasoko ditu kontseiluak hartutako erabakiak

## **XEDAPEN IRAGANKORRAK**

### ***Lehenengoa***

Foru Dekretu hau indarrean sartu eta hilabeteko epean Gizartekintza Departamentuko Foru Diputatuak Ezinduen Kontseilua osatuko duten kideak izendatuko ditu.

### ***Bigarrena***

Kontseilua Foru Dekretu hau argitaratu eta hilabete baino lehen eratu beharko da.

## **AMAIERAKO XEDAPENAK**

### ***Lehenengoa***

Gizartekintza Departamentuko Foru Diputatuari ahalmena ematen zaio Foru Dekretu hau zuzen garatu eta gauzatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

### ***Bigarrena***

Ezinduen Kontseilua sortzeko Foru Dekretu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.